



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

a2facf9b1acd8dc30314f97699575e28fe4f8b474bf31f294cd787a81c8c4be7

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2023KO MARTXOAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2023.03.30

Tolosako Udaletxean, 2023ko martxoaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2023ko martxoaren 2ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. 2023-2026 urteetarako Tolosako Udaltzaingoaren Plan Zuzentzailea onartzea.
3. 2023ko lanpostu Zerrendaren akatsen zuzenketa onartzea.
4. ELAk jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatzea. 2022ko abenduaren 15eko akordioaren aurka jarri dute auzi errekurtsioa, hain zuzen Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean jasotako borondatezko erretiro aurreratuari buruzko neurriak indargabetzen eta ondoriorik gabe uzten dituenaren aurka.
5. Onartzea Tolosako Ekinbide Etxeari errekerimendua egitea eta Euskal Herria plazako 1ean kokatutako eraikinaren jabari publikoko emakida esleitzea.
6. 2023/2 Kreditu aldakteran berri ematea; kreditu txertaketaren modalitatekoa da.
7. Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza orokorraren behin betiko onespena.
8. Mozioa: Migratzaileen ezohiko erregularizazioaren aldekoa.
9. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2023KO MARTXOAREN 2KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. 2023-2026 URTEETARAKO TOLOSAKO UDALTZAINGOAREN PLAN ZUZENTZAILEA ONARTZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko martxoaren 22ko irizpena

AURREKARIAK

2022ko udazkenean, Tolosako Udala udaltzaingoaren Plan Zuzentzaile berria definitzen hasi zen, 2023-2026 urte bitartean udaltzaingoaren jarduna gidatuko duten erronkak zein jarrai lerroak jasotzeko.



Helburua zen egungo udaltzaingo zerbitzua garai zein behar berrietara egokitzen joatea, herriari zein herritarrei udaltzaingo talde moderno zein inplikatu buru izango duen zerbitzu hurbila eta kalitatezkoa eskaintzeko, momentuko zein etorkizuneko beharrei erantzuteko gai izango dena.

Horretarako, baina, lehen urrats gisa, hausnarketa prozesua jarri zuen abian Udalak. Hausnarketa prozesu horren baitan, barne zein kanpo diagnostia egin zen; barne hausnarketa udaltzaingoak berak egin zuten eta kanpo azterketa, aldiz, Udaleko gainontzeko sailek zein herriko talde eta eragile desberdinekin elkarlanean osatu zen.

Asmoa zen bi azterketa horietatik jasotako emaitzak uztartuz, etorkizuneko jardunbide amankomuna definitzea.

Hausnarketa prozesuak egungo zerbitzuaren hainbat alderdi izan ditu aztergai: udaltzaingotik eskaintzen diren zerbitzuak, baliabideak, harreman kanalak, lan taldearen ezaugarriak, funtzioak, barne kudeaketa, udaltzaingoaren indarguneak, ahuleziak...

Zerbitzuaren barne diagnostia

Zerbitzua bere osotasunean aztertu eta iritzi ahalik eta osatuena lortzeko, herriari galdetzeaz haratago, udaltzaingo taldearen ahotsa jasotzea ezinbestekoa izan da Plana osatzeko. Ildo horretan, udaltzaingoa hausnarketa lanetan, horretarako osatutako lan-taldearen bitartez.

Barne diagnosi horretan, udaltzaingo taldeak eskaintzen dituen zerbitzuak, pertsonak (udaltzainen profilak, formazioa, lan giroa...), baliabideak (instalazioak, ibilgailuak, aplikazio informatikoak...), barne kudeaketa (koordinazioa, barne komunikazioa...), harreman kanalak eta interes taldeak (herriko talde eta eragile desberdinak) aztertu dituzte.

Kanpo diagnostia, herriko elkarte eta eragileen eskutik

Aurrez aipatu bezala, kanpo azterketa herriko hainbat elkarte eta eragileekin elkarlanean osatu du Udalak, udaltzaingo taldearen ikuspegi eta ikuspuntuaz haratago, herria zein herritarrena jaso ahal izateko, horiek baitira, hain zuzen, zerbitzu honen hartzaile nagusiak.

Horretarako, Udalak ondorengo interes taldeak definitu zituen: udaletxeko sail desberdinak, brigada, alderdi politikoak, sindikatua, Ertzaintza, Babes Zibila, ostalari zein merkatari elkarteak, Auzo elkarteak, elkarte gastronomikoak, ikastetxeak eta bestelako elkarteak.

Horri jarraiki, Tolosako Udalak, enpresaren gidaritzapean, galdetegi bat zuzendu zien aurrez definitutako interes taldeei udaltzaingoaren inguruan duten iritzia jasotzeko: indarguneak, gabeziak, hobetu beharrekoak, harreman mota, udaltzaingoaren zerbitzuaren ezagutza maila...



Azterketa horren funtsa izan zen herritarrek udaltzaingo zerbitzuaren inguruan duten iritzia ezagutu eta jasotzea, horretarako, besteak beste, zerbitzuaren indarguneak, gabeziak edota hobetu beharreko puntuak identifikatuz.

Behin lan hori eginda, kanpo zein barne azterketatik eratorritako emaitzak amankomunean jarri ziren eta momentuko zein etorkizuneko beharrei erantzuteko neurri edota ekintza zuzentzaileak jasotzen dituen Udaltzaingoaren Plan Zuzentzailea osatu da, 2023-2026 urte bitartean, herria zein herritarrekin osatutako jardunbide amankomun eta partekatua jasotzen duena.

Formulazio estrategikoa

Formulazio estrategikoak erantzun behar die hainbat galderi: Udaltzaingoaren izateko arrazoia, zer eskaini behar den, nori, nola, norekin, eta zer lortzeko.

“Udaltzaingoaren Xedea: Tolosako udaltzaingoaren xedea Tolosan bizikidetzeta eta herritarren eta Tolosako ondarearen segurtasuna bermatuko duen udal zerbitzu publikoa izatea da, legeak eta ordenantzak betearaziz eta prebentzioa landuz, beti ere herritarrekiko gertutasuna ardatz izanik.”

Modu berean erantzun egin behar diogu beste galdera hauei ere: nola hautemanak izan nahi dugu, nora iritsi nahi dugu erakunde gisa?

“Ikuspegia (bisioa): Egungo beharrei erantzun eta etorkizuneko beharretara egokitzeko gai den udaltzaingoa izan nahi dugu beren lana inplikazioz burutzen duten pertonez osatua, eta gertuko eta kalitatezko zerbitzua ematen duena”

Eta azkenik, zehaztu egin behar dira zein printzipiok gidatuko duten udaltzaingoaren jarduna, zein diren haren jokabidea gidatuko duten oinarrizko balioak:

1. **Gertutasuna:** ingurua ezagutzen duena eta modu proaktiboan herritarren konfiantza irabazi nahi duena; komunitateko kideekin harremana landu eta hertsiki lan egiten duena.
2. **Herritarren zerbitzurako bokazioa:** herritarren zerbitzura dagoena beraien arazoak konpondu eta beharrak asetzeko. Bere funtzioak burutzeko garaian herritarrenganako prestasuna agertzen duena.
3. **Lankidetzeta eta kolaborazioa:** udaltzaingoa osatzen duten pertsona guztiekin, udaleko departamentuekin eta Tolosako gainerako erakunde eta interes taldeekin harreman estua mantendu eta elkarlana sustatzen duena.
4. **Konfiantza:** apaltasunez, enpatiaz eta kortesiaz jardunez lantzen dena, besteek esandakoa entzunez eta hortik ikasiaz, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko asmoz.
5. **Errespetua:** duintasuna eta giza eskubideak bermatzen dituena eta inolako bereizkeriarik egiten ez duena, aurrean duen pertsonaren nazionalitatea, jatorria, etnia, bizilekua, hizkuntza, sexua, kolorea... edozein direla ere.



Plan zuzentzailea

Eta datu guzti hauekin 2023-2026 Plan zuzentzailea diseinatu da. Beheko kuadroan zehazten dira Plan honen Ardatzak, Helburu estrategikoak, eta ardatza bakoitzean garatuko diren lan ildoak

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOA	LANDUKO DENA
1. KUDEAKETA	1.1. Udaltzaingoaren lanak antolatu eta homogeneizatu	<ul style="list-style-type: none"> • Barne arautegia • Prozesuak, prozedurak eta protokoloak • Eguneroko lanaren antolaketa • Portaera kodea • Txantiloiak eta dokumentu ereduak • Zehapen prozedurak eta isunen tramitazioa
	1.2. Prebentzio eta proaktibotasunera bideraturiko kudeaketa sistema eratu	<ul style="list-style-type: none"> • Inteligentzia sistema • Segurtasun planak • Herritarrentzat prebentzio formakuntzak
	1.3. Barne koordinazioa eta komunikazioa hobetu	<ul style="list-style-type: none"> • Barne komunikazio eta komunikazio ereduak
2. PERTSONAK ETA BALIABIDEAK	2.1. Kalitatezko zerbitzua emateko behar den taldea osatu eta gaitu	<ul style="list-style-type: none"> • Giza baliabideen hornikuntza • Formazioa • Lan klima • Errekonozimendua
	2.2. Kalitatezko zerbitzua emateko behar diren baliabide materialez hornitu	<ul style="list-style-type: none"> • Eraikin berria • Aplikazio berria • Ibilgailuen horniketa • Teknologia berriak
3. KANPO HARREMANAK	3.1. Interes taldeekin koordinazioa hobetu	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo koordinazio ereduak • Interes taldeen gogobetetzea
	3.2. Kanpo komunikazioa sendotu	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpo komunikaziorako bideak • Kanpo komunikazio plana

Gobernantza ereduak

Plan guzti hau aurrera eramateko, Gobernantza eredu bat aukeratu behar da, Planari jarraipena egin eta behar diren zuzenketa, moldaketa edo gehiketak egin ahal izateko, beti ere hasierako helburuak bete ahal izateko.

Hauxe da proposatzen den Gobernantza ereduak, jarraipen operatiboa zein estrategikoa egin hala izateko.

	Jarraipen operatiboa	Jarraipen estrategikoa
Nork	Udaltzaingoko zinegotzia + Udaltzaingoko Buruzagitza	Alkatea + Udaltzaingoko zinegotzia + Udaltzaingoko Buruzagitza
Noiz	Bi hilero + urtean bitan berezia	Urtean behin (amaieran)
Zer	Proiektuen egoera (bi hilero) + adierazleak (urtean behin edo bitan)	Proiektuen egoera + adierazleak
Nola	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuen aurrerapen maila eta adierazleak euskarri batean erregistratu. • Bilera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuen aurrerapen maila eta adierazleak euskarri batean erregistratu. • Bilera.
Emaitza	<ul style="list-style-type: none"> • Atzeratuak dauden edo aurreratzeko zailtasunak dituzten proiektuak bideratzeko erabakiak (bi hilero). • Hurrengo urtera begirako lehentasunak eta ekintza zehatzak (urtean behin). 	<ul style="list-style-type: none"> • Hurrengo urtera begirako lehentasunak eta ekintza zehatzak. • Kanpora begira kontu emateko aukera.



Antolakuntzako Batzorde Informatiboa, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Aitana Amondarain Esquisabel.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari.

IRIZPEN PROPOSAMENA

Lehenik.- 2023-2026 urterako Tolosako Udaltzaingoaren Plan zuzentzailea onartzea.

Bigarrenik.- Plan zuzentzaile hau honako eranskin hauek osatzen dute:

1. Diagnostikoa xehetua
2. Formulazio estrategikoa
3. 2023-2026 Plan Zuzentzailea xehetua
4. Gobernantza eredia

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu du 2023-2026 urteetarako Tolosako Udaltzaingoaren Plan Zuzentzailea.

3. 2023KO LANPOSTU ZERRENDAREN AKATSEN ZUZENKETA ONARTZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko martxoaren 22ko irizpena
AURREKARIAK

Lehena.- Udalbatzak 2023ko martxoaren 2an udalbatzak 2023 urteko Lanpostu zerrenda onartu zuen.



Bigarrena.- Behin akordioa onartu ostean, akats bat somatu da “Hirigintza, Obrak eta zerbitzuak, ingurumena, mugikortasuna eta trantsizio energetikoko arduradun” lanpostuan, hain zuzen ere baldintza gehigarriari dagokion atalean, 29 zenbakia finkatu da eta honako hau deskribatzen da:

“4 urteko esperientzia, egiaztagarria bere eremu funtzionalaren kudeaketan edo prestakuntza/trebakuntza asimilagarria. Ofimatika aurreratua”

Dena den, baldintza hau zehaztu eta zuzendu behar da zalantza edo anbigutaterik ez sortzeko eta hauxe da baldintza honek eduki behar duen edukia:

“4 urteko esperientzia, egiaztagarria bere eremu funtzionalaren kudeaketan. Hirigintza eta Lurralde antolaketako ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa edota Hirigintzako Diploma 400 ordukoa. Ofimatika aurreratua”

Antolakuntzako Batzorde informatiboak, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran, gai aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Aitana Amondarain Esquisabel.

Beraz, gehiengoz, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

Lehenik.- “Hirigintza, Obrak eta zerbitzuak, ingurumena, mugikortasuna eta trantsizio energetikoko arduradun” lanpostuaren baldintza gehigarriari dagokion atala zuzentzea eta honako erredakzioa ematea:

“4 urteko esperientzia, egiaztagarria bere eremu funtzionalaren kudeaketan. Hirigintza eta Lurralde antolaketako ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa edota Hirigintzako Diploma 400 ordukoa. Ofimatika aurreratua”

Bigarrenik.- Zuzenketa hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez, onartu du 2023ko lanpostu zerrendaren akatsen zuzenketa.

4. ELAK JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAN PERTSONATZEA. 2022KO ABENDUAREN 15EKO AKORDIOAREN AURKA JARRI DUTE AUZI ERREKURTSOA, HAIN ZUZEN GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PLANEAN JASOTAKO BORONDATEZKO ERRETIRO AURRERATUARI BURUZKO NEURRIAK INDARGABETZEN ETA ONDORIORIK GABE UZTEN DITUENAREN AURKA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko martxoaren 22ko irizpena

2023ko martxoaren 15ean ELA sindikatuak Donostiako Administrazioarekiko 3 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri du honako erabaki honen aurka: Osoko bilkurak, 2022ko abenduaren 15ean Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planean jasotako borondatezko erretiro aurreratuari buruzko neurriak indarrrik gabe uztea.

Honela, uztailaren 13ko 28/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz, honako irizpen proposamena egin da.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Aitana Amondarain Esquisabel.

Beraz, gehiengoz honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Lehena.- Tolosako udala 175/2023 administrazioarekiko auzi- errekurtsioan alderdi demandatu gisa agertzea.



Bigarrena.- Espediente administratiboa Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 20 laneguneko epean, Epaitegiko ofizioa eta erantsitako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.- Erabaki hau prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea eta bederatzi eguneko epea ematea, errekurtsio honetan demandatu gisa pertsonatzeko aukera emanaz.

Laugarrena.- Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea: Javier Hernaez Manrique eta Leire Lertxundi Beristain.

Bosgarrena.- Enplamazamenduari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkakoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du ELAk jarritako Administrazioarekiko auzi errekurtsioan pertsonatzea. 2022ko abenduaren 15eko akordioaren aurka jarri dute auzi errekurtsioa, hain zuzen Giza Baliabideen Arrazionalizazio Planean jasotako borondatezko erretiro aurreratuari buruzko neurriak indargabetzen eta ondoriorik gabe uzten dituenaren aurka.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotzia irten egin da.

5. ONARTZEA TOLOSAKO EKINBIDE ETXEARI ERREKERIMENDUA EGITEA ETA EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1EAN KOKATUTAKO ERAIKINAREN JABARI PUBLIKOKO EMAKIDA ESLEITZEA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko martxoaren 22ko irizpena

AURREKARIAK:

LEHENA- Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita zortzian, Ohiko Osoko Bilkuran, bestek beste, ondorengo erabakia hartu zuen:



“-Justifikatutzat ematea Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboa Tolosako Ekinbide Etxeari zuzenean emateko beharra eta komenigarritasuna.

- Onartzea espedientea, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren kontzesioa zuzeneko adjudikazio bidez egiteko.

- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, Euskal Herria plazako 1 zenbakidun eraikinaren eta bere instalazio eta ekipamenduaren erabilera pribatiboaren zuzeneko adjudikazioa arautzen duena.

- Espedientea eta klausula administratiboak 30 egun jendaurrean edukitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren webgunean eta Udaletxeko iragarki taulan jarrita.

- Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea, eta Tolosako Ekinbide Etxeari eskaintzea Euskal Herria plazako 1. zenbakidun eraikinaren erabilera pribatiboaren administrazio kontzesioa”.

BIGARRENA- 2022ko abuztuaren 17an aipatutako erabakia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Baita, ondoko hedabideetan ere:

-Web orrian eta Gardentasun Atarian.

- Iragarkia taulan, 2022ko abuztuaren 26tik urriaren 13ra arte.

Informazio publikoko epean iradokizunik egon ez zenez behin betiko onartua izan da.

HIRUGARRENA- 2022ko urriaren 14ko datarekin, Tolosako Turismo Ekimenen Zentroa Elkarteari gonbidapena bidali zitzaion, prozeduran parte hartzeko 2022ko azaroaren 16arteko mugarekin.

Pleguaren arabera, Erakundeak honako dokumentazio hau aurkeztu behar zuen:

“DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

A) Enpresaburuaren nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.

— Beste baten izenean agertzen direnek edo eskaintzak sinatzen dituztenek zuzenbidean egokia den edozein modutan egiaztatu beharko dute ordezkaritza.

— Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, legez eska daitekeenean.



— Era berean, ordezkatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza aurkeztu beharko du.

_ Erantzukizunpeko adierazpen bat, kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duena, eta berariaz adieraziko du egunean dituela indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, Udalarenak barne, eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eredua atxikitzen zitzaion.

B) Jardueraren memoria eta memoria ekonomikoa.

-Ondasunaren erabilera eta helburua azalduko dituen Memoria. Egingo diren ihardueren deskribapena eta emakidaz emango den ondasun eta ekipamenduen ustiapena.

-Memoria ekonomikoari dagokionez, alderdi ekonomikoei buruzko informazio guztia jaso beharko du, eta ustiategian kontuan hartu beharreko magnitude guztiak aipatuko ditu: inbertsioak, erabiltzaile kopurua. Jardueraren sarrerak eta gastuak zehaztu beharko ditu, baita eraikina eta instalazioak berrikusteko eta mantentzeko plan bat ere. Era berean, hornidurak eta ekipamenduak berritzeko aurreikuspena.

Era berean, jendeari zuzendutako zerbitzu pribatuen prezioak aurkeztu beharko dituzte.

LAUGARRENA-2022ko azaroaren 16an, dokumentazioa aurkeztu zuen. Aurkeztutako dokumentazioa, ordea, ez zen zuzena izan. Izan ere, A) puntuan aipatutako dokumentazioari dagokionez, eskatutakoa dokumentua zuzen aurkeztu zuen. Hala ere, B) puntuari dagokion dokumentazioa ez zegoen osatuta.

Hori dena kontuan izanik, Zinegotzi Delegatuak, 2022ko abenduaren 2an, 2022/2846 Dekretua eman zuen, ondorengoa ebatziz:

“Lehen a.- Tolosako Turismo Ekimen Zentroari hilabeteko epea ematea, ebazpen hau jasotzen denetik kontaktzen hasita, honako agiri hauek aurkez ditzan:

B) JARDUERAREN MEMORIA ETA MEMORIA EKONOMIKOA.

-Ondasunaren erabilera eta helburua azalduko dituen Memoria. Egingo diren ihardueren deskribapena eta emakidaz emango den ondasun eta ekipamenduen ustiapena (Emakida-aldi osoari dagokiona).

-Memoria ekonomikoari dagokionez, alderdi ekonomikoei buruzko informazio guztia jaso beharko du, eta ustiategian kontuan hartu beharreko magnitude guztiak aipatuko ditu: inbertsioak, erabiltzaile kopurua. Jardueraren sarrerak eta gastuak zehaztu beharko ditu, baita eraikina eta instalazioak berrikusteko eta mantentzeko plan bat ere. Era berean, hornidurak eta ekipamenduak berritzeko aurreikuspena.

Era berean, jendeari zuzendutako zerbitzu pribatuen prezioak aurkeztu beharko dituzte, emakida-aldi osoari dagokiona.



Memoria ekonomikoa emakidaren aldi osoari buruzkoa izango da.

Bigarrena- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta ohartaraztea aipatutako epean dokumentazio hori aurkezten ez badu, prozeduran atzera egin duela ulertuko dela.”

BOSTGARRENA-2023ko otsailaren 15ean dokumentazioa aurkeztu du.

Kultura, Festak eta Gazteriako Zerbitzuruak, 2023ko martxoaren 17an txostena egin du. Horren arabera, bi dokumentuek egoki erantzuten diete udalak eskatutako informazioei eta emakida egiteko arrazoi sendoak ematen dituzte. Bata nahiz besteak errealistak, orekatuak eta bideragarriak dira, Tolosako herriaren bizitza kulturalari ekarpen oso positiboak emateko modukoak. Beraz, Proposatu du CIT-TEE elkarteari Euskal Herri Plaza 1zenbakiko eraikina emakidan ematea. Bestalde, memoria ekonomikoak formalki betetzen ditu baldintza pleguak eskatutakoak.

TXOSTEN JURIDIKOA:

LEHENA. Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzerakoan, erabilera pribatibotzat hartuko da jabari publikoko zati bat okupatzea, baina gainerako interesatuen erabilera mugatzen duela edo kanpo uzten duela.

Kontzesio edo emakida administratiboaren bidez egingo da jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa.

Kasu honetan, Tolosako Ekinbide Etxearen esku utzi nahi den eraikuntzak ondorengo deskripzioa du udal inbentarioan:

Nombre de la finca: Plaza Euskal Herria 1

Naturaleza del inmueble:urbana

Naturaleza del dominio:Servicio Público.

Tolosako Ekinbide Etxeari Euskal Herri Plaza 1.zenbakiko eraikina lagatzeko era emakida da.



BIGARRENA. Aplika daitekeen legeria:

— 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena; 74. eta 75. artikulua eta 78.etik 91.era bitartekoak.

— 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; 93 eta 137.4 artikulua.

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 9. artikulua eta 115.etik 155.era bitartekoak, eta Bigarren, Hirugarren eta Hamabosgarren Xedapen Gehigarriak.

HIRUGARRENA. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, **Lege honetatik kanpo gelditzen dira** ondasun higiezinak, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira.

Ondare-legeria hori ondare-legeria estatala da, zehazki esanda, 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 110.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondare-ondasun eta ondare-eskubideen gaineko kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoak, beren prestaketa eta esleipenari dagokionez, lege honek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dituzte, eta arau horietan aurreikusten ez dena Administrazio Publikoetako kontratuei buruzko legeriak arautuko du. Haien eraginak eta azkentzeak lege honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dituzte.

Era berean, 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, bere 98.2 artikulua xedatutakoaren arabera, kontzesioak emango dira aurrez lizitazioa eginda eta Administrazio Publikoetako kontratuen legearekin bat etorrira.

Hari beretik, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 93.1 artikuluan dio (oinarrizkoa, Azken Xedapenetako Bigarrenean ezarritakoaren arabera) jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka-araubidean egin behar direla.

LAUGARRENA. Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak norgehiagoka araubidean egin behar dira. Halere, zuzenean eman ahal izango dira 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4



artikulan jasotako supostu edo kasuetan, ohiz kanpoko inguruabarrak badira tartean, behar bezala justifikatuta, edo legetan ezarritako beste kasu batzuetan.

33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 137.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipen zuzena egin ahal izango da ondorengo kasuetan:

a) Eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean edo, orokorrean, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko. Horren ondorioetarako, sektore publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa honako hau izango da: merkataritza-sozietate bat, baldin eta kapitalaren gehiengoa badu, zuzenean edo zeharka, administrazio publiko batena edo batzuen edo zuzenbide publikoko pertsona juridiko batena edo batzuen.

b) Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.

c) Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko helburu bat gauzatzeko, baina aurreko bi paragrafoetan aurreikusita ez dagoen pertsona batek egina.

d) Besterentzeko sustatutako lehiaketa edo enkantea huts deklaratu denean, edo haiek huts egiten badute esleipendunak bere betebeharrak bete ez dituelako, beti ere urtebete igaro ez bada haiek egin zirenetik. Kasu honetan, besterentzeko baldintzak ezin dira izan aurrez iragarritakoak baino kaskarragoak izan edo esleipena eman zeneko baldintzak baino kaskarragoak izan.

e) Orubean ezin eraiki denean, formagatik edo tamaina txikiagatik, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

f) Ekonomikoki ustiatzeko adinako azalerarik ez duen landa-finka denean, edo bertan bere izaerarekin bat datorren erabilera bat gauzatu ezin denean, eta salmenta jabe mugakide bati egiten zaionean.

g) Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberena edo gehiagorena denean eta salmenta jabe mugakide baten edo gehiagoren alde egiten denean.

h) Salmenta egiten denean lege-xedapenez aitortutako lehentasunezko eroste-eskubidea duenaren alde.

i) Ez ohiko arrazoiak tarteko komenigarritzat jotzen denean salmenta higiezina okupatzen ari denaren alde egitea.

Kasu honetan, zuzeneko emakida, puntu honetan dago justifikatuta: Administrazio Publikoaren ondarea xedatzen duen 33/2003 Legea, 137.4.b) artikuluan, hain zuzen: Ondoko kasuetan zuzeneko esleipeana ahal izango da:

“Eskuratzailerak irabazteko asmorik ez duen entitate bat denean, onura publikokotzat joa, edo legez aitortutako eliza, konfesio edo komunitate erlijioso bat.”



Erakundearen ordezkariak adierazi zuen onura publikokotzat jo zutela. Alderdi hori agiri bidez egiaztatu behar zutela jakinarazi zion udalak ordezkariari hamar eguneko epea emanaz agiria aurkezteko.

2022ko urtarrilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, 1994ko irailaren 6an, "Centro de Iniciativas Turísticas" izeneko elkartearen onura publikokotzat jotzeko ziurtagiria aurkeztu zuen.

BOSGARRENA. Emakidak ezin dira epe-mugarik gabe eman, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, bere 93.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan hogeitaz urterako izango da.

SEIGARRENA. Erabilera pribatiboko emakidak edo jabetze publikoaren aprobetxamendu berezikoak doan izan daitezke; kontraprestazio edo baldintza batekin eman daitezke; tasa bat ordaindu beharra izan dezakete erabilera pribatiboagatik edo jabetza publiko estataleko ondasunen aprobetxamendu bereziagatik —zeina arautzen duen 25/1998 Legeak, uztailaren 13koak, 25/1998 Legeak, uztailaren 13koak, Estatuaren eta Toki Erakundearen Tasen Lege Araubidea aldatu eta Ondare Prestazio Publikoak berrantolatzen dituenak, bere I Tituluko VIII Kapituluaren—; edo araudi berezietan ezarritako tasak ordaindu beharra izan dezakete,

Erabilera pribatiboak edo jabetza publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak ez du tasarik ordaindu behar, baldin eta esleipendunarentzat onura ekonomikorik ez badakar; edo, onurarik badakar ere, erabilerak edo aprobetxamenduak dituen baldintzek edo kontraprestazioek onura hori baliogabetzen edo hutsal uzten badute.

Onar daitezkeen baldintza orokorrek edo partikularrek jaso ditzaketan gainerako kontuen kaltetan izan gabe, kontzesioa emateko erabakiak jaso behar dituzte, gutxienez, Lege horren 92. artikuluko 7. apartatuan baimenentzako ezarritako dauden aipamenak, salbu eta kalte-ordainen eskubiderik ez duen alde bakarreko ezeztapenari dagokiona.

Organo Eskuduna Udaltzatza:

Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen azaroaren 8ko 9/2017ko Bigarren Xedapen Gehigarriko 9. eta 10. puntuek ezarritakoarekin bat. Honela dio artikuluko horrek: "Toki Entitateetako alkateen eta lehendakariaren eskumena izango da haietan kontratu pribatuak egitea, bai eta toki entitateen ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskurtzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua ez bada, 100.1 artikuluan zehaztutako baldintzekin bat, aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioiko euro baino gehiago; ondarearen besterentzea ete beren eskumena izango da, balioa ez bada ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.



Muga hori gainditzen bada Plenoarena izango da.

Kasu honetan, 2022ko maiatzaren 9an, Hirigintzako Departamentu-buruak txostena egin du. Bertan, Euskal Herri Plazako 1.zenbakiko eraikuntzaren balioa ondorengo dela informatu du: 4.736.632,49 euro.

Beraz, aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a baino handiagoa izanik Plenoari dagokio bere onarpena.

Erabakia hartzeko ez da beharrezkoa gehiengo absolutua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 47.j artikulua eskatzen baitu gehiengo hori aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 20a baino handiagoa bada. Kasu honetan gehiengo sinplea nahikoa da.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko martxoaren 22an egindako bilkuran, gaia aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Aitana Amondarain Esquisabel.

Beraz, **gehiengoz**, honako **irizpen** hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

Lehena.- Tolosako Ekinbide Etxe /Asociación "Centro de Iniciativas Turísticas" Elkarteari errekeritzea, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentu hauek aurkez ditzan:

- Egunean dituela indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten Zerga-behebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

-Behin betiko bermea, 142.099 eurokoa, eratu izanaren agiria.

Bigarrena.- Euskal Herria Plazako 1ean kokatutako eraikina emakida esleitzea Tolosako Ekinbide Etxeari, beti ere aurreko atalean ebatzitako errekerimendua bete eta gero, bere terminoetan. Esleipen honen iraupena hogeitun urtekoa izango da, hitzarmena sinatzen den unetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Hitzarmena formalizatzea, 15 laneguneko gehienezko epean, adjudikazioa gauzatu ondoren. Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko, hitzarmena sinatzea barne.

Laugarrena.- Elkarrekin "Mantentze-lanen Liburuan" zehaztutako mantentze-, konponketa- eta berritze-betebeharren erantzukizuna izango du. Hori kontratu-agiri



bat izango da, eta, beraz, aurkeztutako memoria ekonomikoan horretarako ezarritako zenbatekoak orientagarriak baino ez dira izango.

Bosgarrena.- Esleipen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun Atarian, Tolosako Udalaren Web gunean eta Udaletxeko iragarki taulan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begonia Tolosa Mendia, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, AAndu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez, onartu du Tolosako Ekinbide Etxeari errekerimendua egitea eta Euskal Herria plazako 1ean kokatutako eraikinaren jabari publikoko emakida esleitzea.

Xarles Iturbe Pasaban zinegotziak itzuli egin da.

6. 2023/2 KREDITU ALDAKTERAN BERRI EMATEA; KREDITU TXERTAKETAREN MODALITATEKOA DA.

2023/2 kreditu txertaketaren modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2023/624 Alkatetza dekretuak hau dio:

2023AUKA0002

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa eta likidazioa onartu aurrekoa, 2023-KALD-000002-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaile akzidentalaren txostena eta onarpen proposamena.

21/2003 Foru Arauak , abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau



EBATZI DUT

Lehenengoa .- Onartzea likidazio aurreko kreditu txertaketa , 2023-KALD-000002-00 zenbakiduna , proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin , kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	136.680,01
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	385.519,34
6	INBERTSIO ERREALAK	4.639.040,44
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	163.976,58
	TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA	5.325.216,37

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	5.325.216,37
	FINANTZAKETA GUZTIRA	5.325.216,37

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Alkatea

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



7. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2023ko martxoaren 22ko irizpena

Udalbatzarrak, 2023ko urtarrilaren 26an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, onarpen hori informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespenerako iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Web orrian 2023ko otsailaren 2an.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko otsailaren 2an, 22 zenbakian.
- Udaletxeko iragarki taulan 2023ko otsailaren 3tik 2023ko martxoaren 16ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo reklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzardieak jakianren gainean geratu dira.

8. MOZIOA: MIGRATZAILEEN EZOHICO ERREGULARIZAZIOAREN ALDEKOA.

Moziok honela dio:

“Migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzeko Herri Ekimen Legegilerako

Tolosako Udalbatzak, honako hau adierazten du:

- *#RegularizacionYa mugimenduak Tolosako Udalaren babesa eskatu du Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzeko Herri Ekimen Legegilerako.*
- *Azken kalkuluen arabera, Espainiar estatuan 500.000 migratzaile inguru biziko liriateke administrazio-egoera irregularrean, eta horietatik heren bat adingabeak izango liriateke.*
- *Atzeritarrek Espainiar estatuan dituzten eskubide eta askatasunei edo haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan egoitza-baimena lortzeko ezarritako irizpideak oso murriztaileak dira.*



- *Murrizketa horrek kalteberatasun-egoera larriak eragiten dizkie egoera hori pairatzen duten pertsoneri, haien gizarte-bazterketan eragiten duelarik.*
- *Gizarte-bazterketa horrek eragina du herrian eta gizarte osoan, funtsezko produkzio-sektoreen ekarpen ekonomiko, fiskal eta jasangarritasun-ekarpen handia galtzea dakar, bereziki beharrezkoa dena egungo krisi sozial eta ekonomikoaren testuinguruan.*
- *ELGaren ministro-bilera batean, joan den udan, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioetako ministro José Luis Escrivák adierazi zuen irregulartasun-aldi hain luzeekin, batzuetan zazpi edo zortzi urterainokoa, ekonomia informala sortzen dela, sektore askoren lan-baldintzen eta soldaten gaineko beheranzko presioa eraginez.*
- *Espainiar estatuko Gobernuak, 2022ko abuztuan, atzerritarrek bertan dituzten eskubide eta askatasunen edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren erreforma onartu zuen, eta erreforma horrek lan-baimenak emateko izapideak malgutzen ditu, ekonomiaren eta lanpostu duinen eta kalitatezkoen hazkunderan eragiteko helburuarekin, baina ez dute konpontzen gaur egun egoera administratibo irregularrean bizi diren 500.000 pertsonen egoera.*
- *Ezohiko erregularizazioaren mekanismoa Europar Batasunean 1996tik 2008ra bitartean erabili izan da, 43 aldiz 17 estatu kideetan, horietako sei Espainiar estatuan.*
- *Ezohiko azken erregularizazioak Portugal eta Italian egin ziren 2020an, COVID-19ak eragindako pandemian, eta neurri horri babesa ematen dio Nazio Batuetako migratzaileen Giza Eskubideen Aldeko Kontalari Bereziak.*

Arrazoi horiek direla eta, Tolosako Udalbatzak honakoa erabakitzen du:

LEHENENGOA.- *#Regularización YA Mugimendua babestea, 700.000 sinadura baino gehiago behar dituen Herri Ekimen Legegilerako, Espainiako Estatuan migratzaileen ezohiko erregularizazioa eskatzeko, jada Kongresuko Lan eta Gizarteratze Batzordean dagoena.*

BIGARRENA.- *Diputatuen Kongresuan lege-proposamenaren hurrengo testu artikulatua aldatzeko eskatzea:*

LEY POR LA QUE SE ESTABLECE UNA REGULARIZACIÓN EXTRAORDINARIA PARA PERSONAS EXTRANJERAS

Artículo único: modificación de la disposición transitoria primera de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social.

Se modifica la disposición transitoria primera de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social con la siguiente redacción:

"Disposición transitoria primera. Regularización de extranjeros que se encuentren en España. El Gobierno, mediante real decreto, tiene que establecer, en el plazo de 6 meses, el procedimiento para la regularización de los extranjeros que estén en el territorio español antes del día 1 de noviembre de 2021".



HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak migratzaileen eskubide eta askatasunetik eta herri eta gizarte bidezkoago, inklusiboago, anitzago eta demokratikoago baten aldeko borrokarekiko duen konpromisoa berrestea.

LAUGARRENA.- Osoko Bilkuraren erabakia #RegularizacionYa Mugimenduari, Diputatuen Kongresuari eta Espainiar estatuko Gobernuari helaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez, onartu du *Migratzaileen ezohiko erregularizazioa bultzatzeko Herri Ekimen Legegilerako* izeneko mozioa.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:45ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori gutzia ziurtatu dut, alkateak ontzat emanda.

O.e.
ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IPLE0003-2023-03-30 Ohiko bilkurako akta/2023-03-30 Ohiko bilkurako